

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

5156

457/2008 ERABAKIA, uztailaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onarpena ematen zaio Lezako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugaren zati bat aldatzeari.

Maiatzaren 22ko 280/2008 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onarpena eman zitzaion Lezako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugaketa zati batean aldatzeari. Hiri lurzorua mugapenaren zatikako aldaketa hori planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualean, 1 industri lurzoru urbanizagarriko sektoreari buruzkoan, oinarrituta egin zen, alegia, 5 zenbakiko poligonoko 895, 896 eta 897 lurzatiak lurzoru urbanizagarri horretatik ateratzen dira eta udalerriko landa lurzoru bihurtzen dira, azaroaren 7ko 109/2007 Foru Aginduan onartu legez.

Aipatutako arauaren xedapeneko 4. artikuluan, Lezako Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2008ko maiatzaren 26an bete zen eta udalak 2008ko maiatzaren 30ean jaso zuen jakinarazpena.

Uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duenak, 11. artikuluan 4. idatz zatian ezartzen du Udalari ematen zaion entzunaldirako epea, egoki iruditzen zaiona azaltzeko; epe hori hamabost eguneko da.

Epe hori igaro ondoren, Lezako Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako erabakiarekin.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Lezako udalerrirako egin den Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzorua mugapenaren zatikako aldaketa hori planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualean, 1 industri lurzoru urbanizagarriko sektoreari buruzkoan, oinarrituta egin zen, alegia, 5 zenbakiko poligonoko 895, 896 eta 897 lurzatiak lurzoru urbanizagarri horretatik ateratzen dira eta udalerriko landa lurzoru bihurtzen dira, azaroaren 7ko 109/2007 Foru Aginduan onartu legez.

Bigarrena.- Aurrekoa gorabehera, kontuan hartuko da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 2. artikuluko b) idatz-zatik 1, 2 eta 3. puntuetan xedatutakoa, herriguneetatik kanpo hiri ondasun higiezinak hartutako lurzoruei dagokienez.

Hirugarren.- Honako erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea, bai eta Lurralde Historikoan zabal-kunderik handiena duten egunkarietan ere. Gainera, hamabost egun jarriko da jendaurrean, interesdunek nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten. Izan ere, Lezako udaletxeko bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluko 5. paragrafoan eta berau garatzen duen abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluko 1080/1992 Foru Dekretuak 7, 8 eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 8a.- Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

5156

ACUERDO 457/2008, del Consejo de Diputados de 8 de julio, que aprueba definitivamente la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeta al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Leza.

Por Orden Foral nº 280/2008, de 22 de mayo, se aprobó con carácter provisional, la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeta al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Leza. La mencionada Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano se realizó en base a la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, relativa al sector de suelo urbanizable industrial 1, consistente en dar de baja del citado suelo urbanizable las parcelas 895, 896 y 897 del Polígono 5 y calificarlas como suelo rústico del citado término municipal, todo ello aprobado por Orden Foral nº 109/2007, de 7 de noviembre.

En el artículo 4º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Leza, disposición que se realizó con fecha 26 de mayo de 2008, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Leza con fecha 30 de mayo de 2008.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Habiendo transcurrido el citado plazo el Ayuntamiento de Leza no ha manifestado disconformidad alguna con la resolución adoptada.

En su virtud, a propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO

Primero.- Aprobar la Modificación Parcial de la Delimitación de Suelo urbano sujeta al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Leza, se realizó en base a la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento relativa al sector de suelo urbanizable industrial 1, consistente en dar de baja del citado suelo urbanizable las parcelas 895, 896 y 897 del Polígono 5 y calificarlas como suelo rústico del citado término municipal, todo ello aprobado por Orden Foral nº 109/2007, de 7 de noviembre.

Segundo.- No obstante lo anterior, hay que tener en cuenta lo establecido por el artículo 2º apartado b) puntos 1, 2 y 3 de la Norma Foral 42/89 de 19 de Julio del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, para el tratamiento de los suelos ocupados por construcciones de naturaleza urbana, situados fuera de los núcleos de población.

Tercero.- El presente Acuerdo será publicado en el Boletín del Territorio Histórico de Alava y en los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico. Además se procederá a su exposición pública por un plazo de 15 días para que los interesados formulen las reclamaciones oportunas. La exposición pública se llevará a cabo en las Oficinas del Ayuntamiento de Leza, tal y como establecen el artículo 11 apartado 5º de la Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral nº 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en los artículos 7, 8 y 9.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2008.- Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.- Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.- Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.